ERABAKIA, UPV/EHUko IKASLE KONTSEILUAREN BATZORDE IRAUNKORRARENA, 2026ko AZAROAREN 20koa, ZEINAREN BITARTEZ 2026ko AZAROAREN 25erako ETENALDI AKADEMIKORAKO DEIALDIA ONARTZEN DEN.

ACUERDO DE LA COMISIÓN PERMANENTE DEL CONSEJO DE ESTUDIANTES DE LA UPV/EHU, DE 20 DE NOVIEMBRE DE 2026, POR EL QUE SE APRUEBA LA CONVOCATORIA DE PARO ACADÉMICO EL DÍA 25 DE NOVIEMBRE DE 2026.

EHUko Ikasleen Arautegiaren (aurrerantzean, IkAr) 2.7 artikuluan xedatutakoaren arabera, EHUko ikasleok eskubidea dugu gure eskubideak defendatzeko, eta aldarrikapen eta protesta akademikoak egiteko.

De acuerdo con lo dispuesto en el artículo 2.7 del Reglamento del Estudiantado de la EHU (en adelante, RE), las y los estudiantes de la EHU tenemos derecho a la defensa de nuestros derechos y al ejercicio de reivindicaciones y protestas.

Ikasleriak eskubide horretaz IkAr 2.7 artikuluan jasotako bermeekin baliatu ahal izateko, IkAr-an ezarritako prozedurari jarraituz egin beharko da etenaldi akademikorako deialdia.

Para que el estudiantado pueda acogerse a dicho derecho con las garantías recogidas en el artículo 2.7 RE, se deberá de convocar paro académico siguiendo el procedimiento establecido en el RE.

IkAr 28. artikuluan xedatutakoaren arabera, etenaldi akademikorako deialdia egin ahal izango da, eskubideak defendatzeko eta aldarrikapen eta protesta akademikoak egiteko bada.

Según el artículo 28 RE, se podrá convocar paro académico siempre y cuando se realice en defensa de los derechos y en el ejercicio de sus reivindicaciones y protestas académicas.

EHUko Ikasle Kontseiluaren Barne Funtzionamendurako Erregelamenduaren (aurrerantzean, BFE) 57. artikuluko lehen apartatuko lehen paragrafoan aurreikusten den moduan, "[e]tenaldi akademikorako deialdia UPV/EHUko Ikasle Kontseiluko lehendakariak (...) eskatu ahal izango du", besteen artean.

Como prevé el párrafo primero del apartado primero del artículo 57 Reglamento de Funcionamiento Interno del Consejo de Estudiantes de la EHU (en adelante, RFI), "[l] a convocatoria de paro académico podrá ser solicitada", entre otros, "por la Presidencia"

IkAr 27.1 artikuluak etenaldi akademikorako deialdiaren erabakia hartzeko Ikasle Kontseiluko kideen bi herenek aldeko botoa eman behar duela ezartzen du.

El artículo 27.1 RE establece el requisito para la adopción del acuerdo de convocatoria de paro académico de contar con el voto favorable de dos tercios de las y los miembros del Consejo de Estudiantes.

BFE 28 artikuluaren arabera, EHUko Ikasle Kontseiluaren Batzorde Iraunkorra da maila orokorreko etenaldi akademikorako deialdia egiteko organo

Conforme al artículo 28 RFI, el órgano competente para la convocatoria de paro académico de ámbito general es la Comisión Permanente del Consejo de

eskuduna. Izan ere, "Batzorde Iraunkorrak beregan du eskuordetuta UPV/EHUko Ikasle Kontseiluaren eginkizun guztien egikaritza, Erregelamendu honetan edota indarrean dauden arau aplikagarrietan Osoko Bilkurari, Hauteskunde Batzordeari edota kide bakarreko organoei espresuki esleitutakoak salbu."

Estudiantes de la EHU, que "tiene delegado el ejercicio de todas las funciones del Consejo de Estudiantes de la UPV/EHU, salvo aquellas asignadas expresamente en el presente Reglamento o en la normativa aplicable vigente al Pleno, a la Junta Electoral o a los órganos unipersonales."

Etenaldia ezarritako gehiengo kualifikatuz onartu ondoren, etenaldiaren deialdia idatziz jakinarazi beharko zaio organo eskudunari. Organo horrek, gehienez ere, 3 egun balioduneko epea izango du, eskaera Erregistro Orokorrean sartzen denetik zenbatzen hasita, EHUko Ikasle Kontseiluarekin biltzeko, baldintzak betetzen direla egiaztatzeko (IkAr, 28.4.art.).

Una vez aprobado el paro por la mayoría cualificada estipulada, se establece que la convocatoria deberá comunicarse por escrito al órgano correspondiente, quien, en un máximo de 3 días hábiles desde la entrada de la solicitud en el Registro General, convocará una reunión con el Consejo de Estudiantes de la EHU para verificar el cumplimiento de los requisitos (art. 28.4 RE).

Azaroaren 25a, Emakumeen aurkako Indarkeria Ezabatzeko Nazioarteko Eguna, indarkeria matxistaren adierazpen guztien eta gure gizartean oraindik ere dirauten desberdintasunen aurka aldarrikatzeko eta mobilizatzeko eguna da. Diskurtso antifeministen gorakadaren eta orain arte lortutako eskubideen zalantzan jartzearen aurrean, beharrezkoa da berdintasunaren eta borroka feministaren aldeko konpromiso kolektiboa berrestea.

El 25 de noviembre, Día Internacional para la Eliminación de la Violencia contra las Mujeres, constituye una jornada de reivindicación y movilización frente a las distintas formas de violencia machista y las desigualdades que persisten en nuestra sociedad. En un contexto de avance de los discursos antifeministas y de cuestionamiento de los derechos conquistados, resulta necesario reafirmar el compromiso colectivo con la igualdad y la lucha feminista.

EHUko Ikasle Kontseilutik, hezkuntza publikoak indarkeria matxistarik gabeko gizarte bat eraikitzeko duen eginkizuna aldarrikatzen dugu, baita emakumezko ikasle guztiek beren ikasketak berdintasun- eta segurtasun-baldintzetan egiteko duten eskubidea ere. Horregatik, eta ikasleek azaroaren 25aren harira deitutako mobilizazioetan parte hartzeko aukera izan dezaten, 2026ko azaroaren 25eko egun osorako paro akademikoa deitzea proposatzen da.

Desde el Consejo de Estudiantes de la EHU reivindicamos el papel de la educación pública en la construcción de una sociedad libre de violencias machistas, así como el derecho de todas las estudiantes a desarrollar su formación en condiciones de igualdad y seguridad. Por ello, y con el objetivo de facilitar la participación del estudiantado en las movilizaciones convocadas con motivo del 25N, se propone la convocatoria de paro académico durante toda la jornada del 25 de noviembre de 2026.

Horregatik, UPV/EHUko Ikasle Kontseiluaren Batzorde Iraunkorrak, gehiengo kualifikatuaz, honako hau

Por todo ello, la Comisión Permanente del Consejo de Estudiantes de la UPV/EHU, por mayoría cualificada,

ERABAKI DU

ACUERDA

LEHENENGOA.– Euskal Herriko Unibertsitate osoan 2026ko azaroaren 25ean etenaldi akademikoa egiteko deialdia onartzea, egun osorako.

PRIMERO.– Aprobar la convocatoria de paro académico en toda la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea para todo el día 25 de noviembre de 2026.

BIGARRENA.– Xedatutakoa Ikasleen eta Konpromiso Sozialerako Errektoreordeari helaraztea, eta Ikasleen Araudiaren 28.4 artikuluan ezarritako bilera eskatzea, baldintzak betetzen direla egiaztatzeko.

SEGUNDO.– Trasladar lo dispuesto al Vicerrector de Estudiantes y Compromiso Social y solicitarle la reunión estipulada en el artículo 28.4 del Reglamento del Estudiantado para la verificación del cumplimiento de los requisitos.

HIRUGARRENA.– Erabaki hau UPV/EHUko Ikasle Kontseiluaren Gardentasun Atarian argitaratzea.

TERCERO.– Publicar el presente acuerdo en el Portal de Transparencia del Consejo de Estudiantes de la UPV/EHU.

Leioan, 2026ko azaroaren 20an.

En Leioa, a 20 de noviembre de 2026.

Firmado por ANTON LOPEZ LIDIA - ***3431** el día 22/11/2026 con un certificado emitido por AC FNMT Usuarios

UGEDO VICARIO IÑIGO - 22764165F

Firmado digitalmente por UGEDO VICARIO IÑIGO - 22764165F
Fecha: 2026.11.23 08:33:20 +01'00'

Lidia Antón López
UPV/EHUko Ikasle Kontseiluko idazkaria
Secretaria del Consejo de Estudiantes de la UPV/EHU

Iñigo Ugedo Vicario
O.E. UPV/EHUko Ikasle Kontseiluko Lehendakaria
VºBº El Presidente del Consejo de Estudiantes de la UPV/EHU